



## Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: 2. saria

### KALAMBO

Eneko Elizalde Contin

Kalambo matematikako liburu bat da. Kantatzea asko gustatzen zaio eta “kantatu” esaten baduzu kantatu egiten du. Gibel handi bat da eta basakatuei beldur asko die. Amaiur ikastolan bizi da eta bertan lan egiten du.

Egun batean klaseko neska-mutilak bere gainean marrazten hasi ziren. Kalambo oso haserre jarri zen eta gauean ikastolatik alde egin zuen. Herriko plazara joan zen. Han jatetxe baten sukaldean sartu zen eta jatetxean aitona-amona batzuk afaltzen ikusi zituen. Sutondo baten ondoan zeuden. Jatetxetik atera zen eta lantegi batera joan zen. Lantegian langile asko lan egiten zeuden. Gero, Iruñako zabortegira joan zen, eta han bere lagun mina euskara liburua ikusi zuen. Katu batekin jolasten zegoen. Kalambo ez zen hurbildu katu bat basakatu bat bezalakoa zelako, nahiz eta pixka bat txikiagoak izan. Katua joan zen eta Kalambo zabortegian lo egiten geratu zen.

Hurrengo egunean Amaiur ikastolan, irakasleak matematikako liburuak banatzen ari zituen. Baina neska bati liburua falta zitzaion. Neskaren lagun guztiak Kalambo bilatzen hasi ziren. Leku guztietatik bilatu zuten: apalategietan, irakaslearen mahaian, zakarrontzian ... baina Kalambo ez zen inondik agertzen. Bat-batean, kalean soinu bat entzun zen. Ikasle guztiek manifestaldi bat zegoela ikusi zuten. Liburuak ziren.

Azkenean, ikasleek liburuekin hitz egin zuten eta akordio batera iritsi ziren: liburuak ongi zainduko zituzten.